

• Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?

Enpresaren hastapenetan, **zerbitzu automatizatu** bat erabiliko da webgune baten bidez. Bertan, bezeroek gure produktua erosi ahal izango dute eta horri buruzko edozein galdera egin ahal izango digute bezeroaren arretarako atalean.



Aurrerago, enpresa behar bezala garatuta dagoela uste badugu eta behar diren baliabideak baditugu, denda fisikoak gaitzeko aukera aztertuko genuke, **laguntza pertsonala** areagotuz.



Gure enpresa sustatzeko iragarkien bidez, uste dugu metodorik merkeena eta eraginkorrena marketing-a sare sozialen bidez egitea dela. Enpresa-kontu bat sortuz eta gure produktu berritzailea ezagutaraziz, gure bezero berriak eta lehen bezeroak erakarriko ditugu.



Bestalde, gure webgunean atal bat prestatuko da bezeroek gure enpresan ekarpenak egin eta lagundu ahal izateko, produktuari buruzko ideia berriak emanez. Ideia horiek kontuan izango ditugu gure enpresa bezeroekin batera hazteko.

